

91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a

18. ORDENANTZA

ORDENANTZA, UDALAREN LOKALAK ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria.

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. idatz-zatiko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean.

Ordaindu beharra noiz sortzen den.

2. artikulua. Prezio publikoa ordaindu beharra sortzen da baimena ematean eta ordaindu beharko da ekitaldia egin baino bi egun lehenago gutxienez.

3. artikulua. Interesdunak erabiltzeari uko egin ahal izanen dio ekitaldirako ezarritako data baino hogeita lau ordu lehenago, eta halakoetan prezio publikoaren %50 itzuliko zaio.

Ordaintzera behartuak daudenak.

4. artikulua. Udalak aipatu lokalak erabiltzeko baimena nori ematen dion, haiexek daude beharturik prezio publikoa ordaintzera.

Erabilera.

5. artikulua. Baimena Udaltzako udal lokalen erabilpenerako onetsitako arauen arabera emanen da.

6. artikulua. Jaieguntzat hartuko dira Udal honetako langileek lan egutegian halakotzat hartzen direnak.

Tarifak.

7. artikulua. Ordaindu beharreko tarifak arau honen eranskinean agertzen dira, eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga beren baitan izanen dute, hala badagokie.

2014KO TARIFEN ERANSKINA - 248. NAON ARGITARATUA 2013KO ABENDUAREN 27A

I. epigrafea.–Tarifak.	
Ekitaldi aretoa.	
–Ordubetez erabiltzeko prezioa.	114,00
–8 ordutik goiti, egun berean 24 ordu bitarte.	632,00

Udalaren gainerako lokalak.	90,60
Clara Campoamor aretoa.	
–Ordubetez erabiltzeko prezioa.	106,15
–Bi ordu.	132,15
–2 ordutik 5 ordura.	158,15
–5 ordutik 8 ordura.	185,15
–8 ordutik goiti, egun berean 24 ordu bitarte.	440,10
Jaiegunetan tarifak %50 igoko dira.	